



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

BILBOKO UDAL-ETXEBIZITZEN ENKANTE BATEAN USTEZ EGONDAKO LEHIAREN GAINEKO ARAU-HAUSTEARI BURUZKO TXOSTENA

273-SUST-2018 LEA/AVC espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. TXOSTENAREN XEDEA.....	3
III. KONTSIDERAZIOAK.....	3
1. Araudia.....	3
2. OPEUR eta GABUTOA enpresen arteko loturak	5
3. Beloa altxatzeari buruz.....	9
IV. ONDORIOAK	11

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Álvarez andrea, bokala

Maria Lourdes Muñoa Corral andrea, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako osaerarekin, honako txosten hau eman du, 2018ko ekainaren 26an eginiko bileran, Bilboko udal-etxebizitzaren enkante batean ustez egondako lehiaren gaineko arau-hausteari dagokionez.

I. AURREKARIAK

1. 2018ko apirilaren 19an, EBK, Bilboko Udal Etxebizitzak (aurrerantzean, BUE) tokiko erakunde autonomoaren zuzendari nagusiak, LEAri txostena helarazi zion, eta honako hau eskatu:

«Aipatutako gertaerak ondorioztatutzat jotzea, eta eskatutzat, Zuzendariorde Operatibo eta Juridikoaren txostenak aipatzen duen erabakia».

2. Aipatutako eskaera horrekin batera txostena ere aurkeztu zuten, eta lizitazio-prozedura aztertzea proposatu dute horren bidez, «zehazteko OPEUR SL (aurrerantzean, OPEUR) eta GABUTOA SL (aurrerantzean, GABUTOA)



enpresek, Lehia Defendatzeko Legearen (uztailaren 3ko 15/2007) kolusio-jokabideen aurkako xedapenak urratuta, konkurtso-prozesuak gidatu behar dituzten lehiaren arauak hautsi dituztela xedatu behar den».

3. Aipatutako txostenaren iritziz:

«Espedientean jasota dagoen dokumentazioaren bidez egiazta daiteke Opeur SL eta Gabutoa SL enpresek (XXX eta ZZZ : jaunek haien izenean jarduten dute) **egoitza helbide berean dutela, Loiuco Larrondo kaleko 3.ean, eta bien eskaintzak aurkeztu eta errekerimendua jaso pertsona berak egin duela bien ordezkari gisa, eta Opeur SLk eskaintzan atzera egin zuela hurrengo sailkatua Gabutoa SL zela egiaztatu ondoren**».

4. Hona hemen salaketa eragin duten egitateak:

5. BUEk enkante publikoan jarri zuen Pau Casals etorbideko lokal bat, alokairu-araubidean. Honako eskaintza hauek aurkeztu zituzten 2017ko abenduan:

PAU CASALS ETORBIDEA 11, 5/6 LONJAK; ETA 13, 7/9 LONJAK	
LIZITATZAILEA	ESKAINZA EKONOMIKOA
OPEUR SL	15.720 €
GABUTOA SL	12.120 €
AZR	12.100 €

6. OPEUR eta GABUTOA enpresen eskaintzak pertsona berak (B.F.) egun eta ordu berean aurkeztu zituen.

7. BUEk igorritako agirien artean BUEren Kontratazio Mahaiaren 2017ko abenduaren 22ko akta dago, zeinak, besteak beste, erabaki baitzuen sailkapen-proposamena BUEren presidenteari aurkeztea. Sailkapen horretan eskaintza ekonomiko onuragarriena OPEUR enpresak aurkeztutakoa da, 15.720 euroko urteko errentarekin.

8. Jasota dago, halaber, BUEren presidenteak onetsi egin zuela Kontratazio Mahaiak aurkeztutako proposamenen sailkapena Pau Casals etorbidean dagoen lokalaren errentamendurako. Sailkapen horretan GABUTOA enpresarena bigarrena zen, eta hirugarrena pertsona fisiko batena.

9. Kontratazio Mahaiaren proposamenarekin bat etorritik, 2018ko urtarrilaren 8an BUEren presidenteak Alfonso Gallardo Rodríguezi, OPEUR enpresaren



ordezkari zenari, alokairu-kontratua formalizatzeko dokumentazioa igortzeko eskatu zion.

10. OPEUR enpresak ez zuen bete 2018ko urtarrilaren 10ean jakinarazitako eskaera. H.J.k sinatu zuen jakinarazpenaren hartu-agiria.
11. 2018ko urtarrilaren 31n, BUEk OPEUR enpresaren eskaintza artxibatzea erabaki zuen, egindako dokumentazio-eskaera ez betetzeagatik, baita, ondorioz, enpresak aurkeztutako behin-behineko bermea, lizitazio-tasa gisa finkatutako urteko errenta-balioaren % 2 zena (7.485,52 euroen % 2 = 149,71 euro), galtzea ere.
12. Egun berean, BUEk *ZZZ* ari, GABUTOA enpresaren ordezkariari, alokairu-kontratua sinatzeko dokumentazioa eskatu zion. Eskaera hori helbide berean jakinarazi zen 2018ko urtarrilaren 10ean. Jakinarazpenaren hartu-agiria H.J.k sinatu zuen, aurreko pertsona berak, alegia. 2018ko otsailaren 15ean, eskatutako dokumentazioa sartu zen BUEren erregistroan.
13. Maiatzaren 14an, LEAk OPEUR eta GABUTOA enpresen eskriturak eskatu zizkion BUEri, bien sozietate-partaidetza eta lehen analisia egiteko interesgarri izan zitekeen dokumentazio guztia jakiteko. BUEk, egun bereko mezu elektronikoko bidez, enpresek enkantean parte hartzeko aurkeztutako dokumentazioa aurkeztu zuen, bi enpresen eskriturak eta merkataritza-erregistroaren kopiak jasota.

II. TXOSTENAREN XEDEA

14. Txosten honen xedea da aztertzea OPEUR eta GABUTOA enpresek izandako jokabidea (Bilboko lonja bat alokatzeko BUEk sustatutako enkantean) lehiaren arloko araudiaren arau-haustea izan den.

III. KONTSIDERAZIOAK

1. Araudia

15. BUEk esleitutako enkantearen araubide juridikoa, prestatu eta adjudikatzeari dagokionez, arau hauen arabera zuzentzen da:



- Bilboko udal-etxebizitzak tokiko erakunde autonomoaren jabetzako etxebizitza ez beste ondasun higiezinak errentamenduan, enkante bidez, emateko administrazio-klausula berezien plegua.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.

- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena.

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamendua (TEOE).

- 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena (SPKLTB).

2/2006 Legea, ekainaren 30koa, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

- Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 ED eta gainerako Zuzenbide Arauak, eta 817/2009 errege Dekretua, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

- 29/1994 Legea, Hiri Errentamenduena.

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.

- 16.** Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legearen aplikazio-eremuaren barruan toki-administrazioa osatzen duten erakundeak daude (2. artikulua). Halaber, 110. artikuluan xedatzen du ondasunen eta ondare-eskubideen gaineko kontratuak eta gainerako negozio juridikoak, prestatu eta adjudikatzeari dagokionez, ondareari buruzko aipatutako legearen eta hura garatzeko xedapenen arabera zuzentzen direla, eta, aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez, administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriaren arabera.
- 17.** Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 92. artikulua, berriz, Ondareari buruzko Legearekin bat etorrira, aurreikusten du toki-erakundeen ondare-ondasunen erabilera lagatzeko beste edozein bide, prestatu eta adjudikatzeari dagokionez, edozelan ere, toki-erakundeen kontratazioa arautzen duen araudiaren arabera zuzenduko dela.
- 18.** Manu horrek esan ere egiten du enkantea egin beharra egongo dela lagapenak bost urtez baino gehiagoz irauten badu. Kontratuak ez du luzapenik aurreikusten, baina bai kontratua, errentamendu-kontratu berri bat sinatuz, berritzeko aukera.
- 19.** Pleguak kasu honetan aurreikusitako adjudikazio-sistema honako hau da: enkantea, eskaintza idatziekin, eta eskaintzaile onenak irabaztea, tasazio ofizialaren ondoriozko urteko errenta (7.485,52 €) oinarri hartuta.



20. Ondorioz, errentamendu-kontratua 3/2011 LEDren aplikazio-eremutik (4.1.p artikulua) salbuetsitako kontratu pribatua bada ere, prestatu eta adjudikatzeari dagokionez, 3/2011 LED bai aplikatu behar dela.
21. Beste manu batzuen artean, SPKLTBren III. liburuaren barruan (adjudikazioari buruzkoa da¹) 145.3 artikulua dago, honako hau xedatzen duena: «Lizitatzailerako bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu».

2. OPEUR eta GABUTOA enpresen arteko loturak

22. Aurretiaz OPEUR eta GABUTOA enpresen artean loturarik dagoen aztertu behar da, lotutako enpresak balira ez bailegoke lehia askearen afekziorik.

23. José María Fernández Astudilloren hitzak aintzat hartuta²:

«Lotu gabeko enpresen arteko kolusio-hitzarmenei dagokienez lehiaren organoek zehatzeko eragozpenik ez badago ere, ez da gauza bera gertatzen lotutako enpresak direnean; izan ere, Lehiaren Batzorde Nazionalak ikertzeko jardueren bitartez adierazten duen bezala, **elkarren independenteak diren operadore ekonomikoak ez direnez, batera eginiko jarduerak ez dute eraginik lehia askearen interes publikoan».**

(...)

«Oraindik Batzordearen iritzia da **elkarren independenteak diren enpresak direla, eta ondorioz lotuta ez daudenak, 15/2007 Legearen 1. artikuluan aurreikusitako kolusioa egin dezaketenak».**

24. Hala, OPEUR enpresaren helburu soziala salgaien errepideko garraioa da. Garraioa oro har, eta makineria ustiatzea eta eskuratzea. Haren administratzaile bakarra XXX da. OPEUR enpresaren ahalordedun gisa ZZZ ageri da 2012ko uztailetik. XXX eta ZZZ anaiak dira. Sozietate mugatua 1991ko urtarrilaren 23an eratu zen XXX eta XLZ ren artean; bakoitzak sozietate-partaidetzen erdiak ditu (bakoitzak 1.000 pezetako 500).

¹ 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

² EGILEA. José María Fernández Astudillo. OBSERVATORIO CONTRATACIÓN PÚBLICA webgunean argitaratutako artikulua. Honako URL helbide honetan eskuragarri: <http://www.obcp.es/index.php/mod.opiniones/mem.detalle/id.148/chk.7b2231a3bf2dfc6595058c77ec814d1a>



OPEUR SL
Administratzaile bakarra: XXX
Ahalordeduna: ZZZ

25. OPEUR enpresaren estatutuek administratzaile bakarrari, XXX ri, ahalmen hauek ematen dizkiote:

(...)

f) Era guztietako ondasunak, higigarriak eta higiezinak, erostea, saltzea, trukatzea eta, beste edozein titulu bidez, eskuratzea eta besterentzea, **alokairuak adostea**, horiek inskribagarriak izan edo ez...

(...)

h) **Era guztietako kontratuak egitea** edozein pertsona fisiko edo juridikorekin, erakunde publiko eta pribatuekin (Estatua, probintzia, udalerrria eta autonomia-erkidegoak)...

(...)

26. Merkataritza-erregistroko dokumentazioaren artean jasota dago XXX k, OPEUR enpresaren administratzaile bakarra den aldetik, **ahalordea eman ziola** ZZZ anaiari, 2012ko uztailaren 18an, ahalmen hauei dagokienez:

(...)

g) **Era guztietako errentamendu-kontratuak formalizatzea**, baita industriakoak eta finantza-errentamenduen zerbitzuetakoak (leasinga) ere, higigarrien eta higiezinen gainean.

Lehiaketetan eta enkanteetan parte hartzea eta era guztietako kontratuak egitea, egoki irizitako baldintzekin; kontratu horiek zuzentzea, aldatzea, deuseztatzea eta iraungitzea

(...)

Oro har, **helburu sozialak eskatzen dituen ondasunak edo eskubideak administratzeko kontratu guztiak.**

27. Azaldutakotik ondorioztatzen da XXX zein ZZZ anaiek, OPEUR enpresaren ordezkari gisa, enkantera aurkezteko eta errentamendu-kontratua sinatzeko ahalmena dutela.

28. ZZZ , beste kargu batzuen artean, **GABUTOaren administratzaile bakarra** ere bada; haren helburu soziala, honako hau da: «joko-makinak eta ausazko makinak, A eta B motakoak eta era guztietakoak, ezarri eta ustiatzeko joko-aretoen merkataritza-ustiapena».

29. ZZZ k GABUTOaren administratzaile bakar gisa dituen ahalmenen artean, hau ere ageri da:



«Era guztietako errentamendu-kontratuak formalizatzea, baita industriakoak eta finantza-errentamenduen zerbitzuak (leasinga) ere, higigarrien eta higiezinen gainean.

Lehiaketetan eta enkanteetan parte hartzea eta era guztietako kontratuak egitea, egoki irizitako baldintzekin; kontratu horiek zuzentzea, aldatzea, deuseztatzea eta iraungitzea».

GABUTOA SL
Administratzaile bakarra: ZZZ
Ahalordeduna: RST

30. Hau da, ZZZ k errentamendu-kontratuak formalizatzeko eta enkanteetan parte hartzeko ahalmenak ditu OPEUR zein GABUTOA enpresen ordezkari gisa.
31. ALAGARO MANAGEMENT SLren (aurrerantzean, ALAGARO) jabetzakoa da GABUTOA (% 100). ZZZ da ALAGAROn presidentea, eta ahalordearen kargua ere badu. Haren anaia XXX, berriz, ALAGAROn administratzaile bakarra eta idazkaria da. Bien anaia, RST, ALAGAROn presidenteordea eta kontseilaria da, baita, aldi berean, GABUTOaren ahalordeduna ere.

ALAGARO SL
Presidentea: ZZZ
Presidenteordea: RST
Kontseilaria: RST
Kontseilaria: ZZZ
Kontseilaria: XXX
Ahalordeduna: ZZZ
Idazkaria: XXX
Administratzaile bakarra 2017/11/10 arte: XXX

32. Azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau adierazi behar da:
33. Kapital Sozietateei buruzko Legearen 231. artikulua³, administratzaileei eta zehazki administratzaileei lotutako pertsonari dagokienez, xedatzen du **administratzaileei lotutako pertsonatzat hartuko direla administratzailearen anai-arrebak.**
34. SPKLTBren 145. artikulua⁴, enkantea egin zenean indarrean zegoenak, eta proposamen bakarraren printzipioa ezartzen duenak, Merkataritza Kodearen 42.

³ 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. 2010eko uztailaren 3ko BOE, 161. zk.

⁴ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena. [Indargabetutako xedapena, baina indarrean enkantearen ulean]. 2011ko azaroaren 16ko BOE, 276. zk. 145.3 artikulua: «Lizitzaile bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu, hargatik eragotzi gabe lege honen 147. artikuluan aldaerak edo hobekuntzak onartzeari buruz eta 148. artikuluan enkante elektronikoan prezio edo balio berriak aurkezteari buruz ezarritakoa. Halaber, ezingo du beste lizitzaile batzuekin batera aldi baterako elkarte eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat



artikulura igortzen du bi enpresa edo gehiago lotutzat hartu ahal izateko kasuak identifikatzeko orduan.

35. Kapital Sozietateei buruzko Legearen 231. artikuluan ezarritakoarekin bat, Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua hitzez hitz honako hau dio:

«Taldea bat dago sozietate batek beste baten edo beste batzuen kontrola duenean edo eduki dezakeenean, zuzenean edo zeharka. Zehazki, kontrola badagoela esango da, sozietate bat beste sozietate bateko bazkide denean lehenari nagusia eta bigarrenari mendekoa esango zaie, eta nagusia kasu hauetakoren batean dagoenean mendekoari dagokionez:

- a) Boto-eskubideen gehiengoa duenean.
- b) Administrazio-organoko kide gehienak izendatzeko edo kargugabetzeko ahalmena duenean.
- c) Hirugarrenekin egindako akordioei jarraikiz, boto-eskubideen gehiengoa izan dezakeenean.
- d) Kontu finkatuak emateko garaian eta horren aurreko bi ekitaldietan, administrazio organoa osatu duten kideen gehiengoa bere botoekin bakarrik aukeratu duenean. Zehazki, gorabehera hori badagoela esango da, mendeko sozietateko administrazio organoko kide gehienak sozietate nagusiko edo hark mendean duen beste bateko administrazio organoko edo goi zuzendaritzako kide direnean. Kasu honek ez du finkapenik eragingo, baldin eta izendatutako administratzaile horien sozietatea beste batekin elkartuta badago artikulua honetako lehen bi hizkietan aurreikusitako kasuren batean (...).

36. Halaber, Kontabilitate Plan Orokorraren ondorioetarako, enpresen arteko kontrol-harremana dagoela ulertzen da, baldin eta pertsona fisiko edo juridiko batek edo zenbaitek sozietateak edozein bide erabiliz kontrolatzen baditu, eta batera jarduten badute edo estatutu-akordio edo -klausulen bitartez zuzendaritza bakarra badute.

37. ALAGAROk GABUTOAren jabetza du (% 100); haren gaineko zuzeneko kontrola du, beraz.

38. ALAGAROren organo erabakitzaileak eta administratzaileak hiru anaiak pilotzen dituzte (XXX, ZZZ eta RST).

39. ZZZ , ALAGAROren presidentea izateaz gain, aldi berean GABUTOAren administratzaile bakarra eta OPEUR enpresaren ahalordeduna ere bada, azaldutako ahalmenekin, eta enkanteetara aurkeztu eta errentamendu-

baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere».



kontratuak sinatu ditzake horiei esker. Bi enpresa lizitatuazaleetan ditu ahalmen horiek. Ez dugu ahaztu behar ahalordedunek ahalmenak erabiliz hartutako erabakiek sozietatea beste batzuen aurrean lotzen dutela.

40. XXX , berriz, OPEUR enpresaren administratzaile bakarra eta, gainera, ALAGAROn kontseilaria eta idazkaria denez (eta haren administratzaile bakarra 2017ko azarora arte), zeharkako kontrola egiten du GABUTOAren gainean, enkantean ustez lehiakide duen enpresaren gainean, alegia.
41. Enpresa guztiek instalazioak eta langileak partekatzen dituzte Loiuko Larrondo kaleko 3. zenbakian.
42. Bi enpresentzat langile berberak aurkezten dituzte enkantearen eskaintzak eta jasotzen dituzte BUEren jakinarazpenak.
43. ALAGARO enpresaren izena bera XXX eta ZZZ en
akronimoa da.
44. Azken batean, azaldutakoari jarraikiz, OPEUR eta GABUTOA enpresen artean lotura egon badagoela adierazi behar da, azaldutako erantzukizuneko karguak pertsona berberak betetzen dituztelako, eta anaiak direlako, gainera. Hori dela eta, ez dago ondorioztatzerik enpresek izandako jokabideek lehia askean eragiten dutenik.

3. Beloa altxatzeari buruz

45. Mirta García Rosa⁵ egileak adierazten duen moduan, legeak ez du eragozten lotutako enpresek eskaintza ezberdinak aurkeztea, baina, aldi berean, proposamen bakarraren printzipioa bete beharra ezartzen du. Horregatik, OPEUR eta GABUTOA enpresek enkantean aurkeztutako eskaintzek lege-aurreikuspenak urratzen dituzten aztertu behar da.
46. Europako joera jurisprudenzial nagusiak zera hobeste du: kasuak «beloa altxatzeko» teknikaren bidez banaka aztertzea, berme gehien ematen duen

⁵ ASOCEX, Autonomietako Kanpo Kontrol Organoen Elkarte. Egilea: Mirta García Rosa, Asturiasko Printzerriko Kontu Sindikaturako Kontu-ikuskaritzako teknikaria. Artikuluaren izenburua: «Presentación de proposiciones por empresas vinculadas: pautas para levantar el velo de la colusión». Eskuragarria webgune honetan: <http://asocex.es/presentacion-de-proposiciones-por-empresas-vinculadas-pautas-para-levantar-el-velo-de-la-colusion>.



aukera delako. Hau da, kontua da aztertzea itxuraz ezberdinak diren sozietateen edo enpresen nortasun juridikoaren azpian erabaki-zentro bakarra dagoen.

- 47.** Era berean, Extremadurako Administrazio Kontratazioko Kontsulta Batzordearen iritziz (1/2014 txostena), enpresa batek beste baten gainean duen jarrera menderatzaile eta kontrolatzailea frogatu behar da.
- 48.** Mirta García Rosaren aburuz, egoera hori badago, lege-iruzurra egongo litzateke, SPKLTBren 145.3 artikulua urratuko bailitzateke; izan ere, lizitatzailerak eskaintza bat baino gehiago aurkeztuko luke, eta ondorioz, abantailak izango litzuke gainerako lizitatzaileraren aldean.
- 49.** Egitateak aintzat hartuta, zantzu nahikorik dago pentsatzeko lotutako bi enpresek kasu honetan erabaki-zentro bakar baten modura jardun dutela, honako estrategia honekin: bereiz aurkeztea lokalaren adjudikazioa, alokairu-araubidean, ziurtatzeko aukerak gehiago izan zitezkeen, eta ondoren, eskaintzen hurrenkera ezagutu ondoren, OPEUR enpresak, eskaintza ekonomiko handiena egin duenak tazituki atzera egitea (149,71 euroko fidantza galtzea onartuta), GABUTOA enpresaren onerako. Eskaintzaile onenak atzera egiteak helburu ekonomikoa du, biei 18.000 € aurrezteak dakarkie-eta; hau da, OPEUR eta GABUTOA enpresek aurkeztutako eskaintzen arteko 3.600 euroko aldea, kontratuaren 5 urteez biderkatuta.
- 50.** Horri dagokionez, SPKLTBren 60. artikuluko 2. paragrafoaren a) letrak, indarrean lizitazioaren unean, lizitatzailerak kontratatzeke debekua aurreikusten zuen, adjudikatzeke prozedura batean proposamen edo hautagaitza bidegabeki erretiratu dutenentzat edo, 151. artikuluko artikuluen 2 zenbakian ezarritakoa adierazitako epearen barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria egonik, kontratua beren alde adjudikatzea eragotzi dutenentzat. Kontratazio-organoak xedatu beharko luke hori, nolana ere.
- 51.** Bi enpresen arteko lotura bereziak, aurreko apartatuetan azalduak, aintzat hartuta, uste dugu bi enpresen jarduna erabaki-zentro beraren kontrolpean dagoela, eta gutxienez XXX eta ZZZ esku dago zentro hori. Nolanahi ere, kontratazio-organoak, organo eskuduna den aldetik, baloratu behar du hori.



IV. ONDORIOAK

52. «Lotu gabeko enpresen arteko kolusio-hitzarmenei dagokienez lehiaren organoek zehatzeko eragozpenik ez badago ere, OPEUR eta GABUTOA elkarren independenteak diren operadore ekonomikoak ez direnez, batera eginiko jarduerak ez dute eraginik lehia askearen interes publikoan.
53. OPEUR eta GABUTOA enpresen erabaki-zentro bakarra hautematen da, Alfonso eta Antonio Gallardo Rodríguez anaien esku.
54. Txostenean azaldutako gertaerak kontratu-araudiaren proposamen bakarraren printzipioaren urraketa izan litezke.
55. OPEUR SL enpresaren jokabideak kontratatzeko debekua ekar dezake, SPKLTBren 60.2.a) artikuluan aurreikusita. Kontratazio-organoak baloratu beharko du hori.